



Andoainek merkatua berreskuratuko du Goikoplazan datorren larunbatetik aurrera, apirilaren 25ean

- **Andoaingo Udalak merkatua larunbatetan berrezarriko du, momentuz, astean egun bat**
- **Soilik elikagaien eta edarien salmenta baimenduko da, goizeko 9:00-13:00 ordutegian zehar**

Elikagaien ekoizleekin eta saltzaileekin kontrastatu ondoren, konpromiso irmoa dago merkatua partzialki berrezartzeko, soilik janari- eta edari-postuetarako. Datorren larunbatean, apirilaren 25ean, merkatua berreskuratuko da berme guztiekin, osasun eskakizun guztiak betez.

Azokaren kokapena aldatuko da, Makaldegitik Goikoplazara, eta, momentuz, **astean behin egingo da**, larunbatetan. Azokarako ezarritako **ordutegia 4 ordukoa izango da, goizeko 9:00etatik eguerdiko 13:00etara**.

Helburu nagusia salbuespenezko egoera honek baserritar, elikagai ekoizle eta saltzaileengan izan dezakeen eragina arintzea da. Horretarako, Osasun Sailak zehaztutako segurtasun- eta babes-neurriak hartuko dira: hainbat bereizketa-elementu ezarriko dira itxarote-uneetan, ilara egitean gutxieneko distantziak bermatzeko, bai eta elikagaia manipulatzeko neurriak ere.

6 metroko segurtasun-distantziak ezarriko dira postu ezberdinen artean, eta 2 metroko distantziak bezeroekiko. Postu bakoitzeko saltzaile baten gehienezko kupoa ezarriko da.

Makaldegiko aparkalekuan larunbat eta astearteetako merkatu osoa egitea debekatu zenetik, Andoaingo Udalak merkatua partzialki berrezartzeko aukera lantzen aritu da, bereziki elikagaien ekoizle eta saltzaileentzat bideratuta. Baina tokiko elikagai-ekoizle eta -saltzaile gehienek partzialki berrezarri nahi ez zutela egiaztatu ondoren, etenaldiak bere horretan jarraitu du orain arte.

Aste honetan bertan, herrietako asteroko merkatu-mota hauek egitea eragozten zuten osasun-neurrietako batzuk kendu ondoren, Udalak elikagaien ekoizleen eta saltzaileen iritzia konprobatu eta egiaztatu du berriro. Erronda berri honetan baieztatu da merkatua berriz ezartzeko borondatea dagoela. Horregatik, Andoaingo Udalak merkatua egitea erraztuko du, modu ordenatuan eta osasun-berme guztiekin.

Andoainen, 2020ko apirilak 18



Andoain recuperará el mercado en Goikoplaza a partir del próximo sábado, 25 de abril

- **El Ayuntamiento de Andoain restablecerá la celebración del mercado los sábados, un día a la semana**
- **Se recuperará la venta de alimentos y bebidas, en horario de 9:00-13:00h**

Tras contrastarlo con los productores y vendedores de alimentos, existe compromiso firme para restablecer el mercado de forma parcial, sólo para puestos de alimentación y bebidas. El próximo sábado 25 de abril se recuperará el mercado con todas las garantías, cumpliendo con todas las exigencias de salud.

Se cambiará la ubicación del mercado, desde el Choperal a Goikoplaza, y de momento, se celebrará con **una frecuencia semanal de 1 día, los sábados**. El horario establecido para el mercado será de 4 horas, **desde las 9 de la mañana hasta la 1 del mediodía**.

El objetivo principal es paliar el efecto que puede tener esta situación excepcional en los baserritarras, productores y vendedores de alimentos. Para ello, se tomarán las medidas de seguridad y protección definidos desde el Departamento de Salud: se establecerán diferentes elementos de separación para garantizar las distancias mínimas en los momentos de espera, al hacer cola, así como medidas para manipulación del alimento.

Se establecerán distancias de seguridad de 6 metros entre puesto y puesto, y distancias de 2 metros con las personas clientes. Se establece el cupo máximo de 1 vendedor por puesto.

Tras la supresión inicial de la totalidad del mercado de los sábados y martes que se celebra en el parking del Choperal, desde el Ayuntamiento de Andoain ha trabajado en la opción de restablecer el mercado de forma parcial, sólo para los productores y vendedores de alimentos. Pero tras constatar la negativa de la mayoría de los productores y vendedores de alimento locales a restablecerlo de forma parcial, se ha mantenido la suspensión.

Esta misma semana, tras el levantamiento algunas de las restricciones de salud que imposibilitaban la celebración de este tipo de mercados semanales, el Ayuntamiento ha vuelto a contrastar la opinión de los productores y vendedores de alimentos. Se ha podido constatar una voluntad de reestablecer el mercado. Es por ello, que desde el Ayuntamiento de Andoain se facilitará la celebración del mercado, de forma ordenada y con todas las garantías de salud.